

Haurren artean irakurzaletasuna sustatzeko liburuak jarriko dituzte Berangoko osasun zentroan

Bizilagun gazteenen artean irakurzaletasuna sustatzea du helburu Berangoko Udalak. Hori dela eta, beste pausu bat eman dute liburuen presentzia ohiko zein gozagarri suerta dakien txikiei. Bide horretan, osasun zentroan liburuen stand bat jartzea barnebiltzen duen kanpaina abian jarri du Kultur Etxeak. 12 urte arteko umeei zuzenduta egongo dira argitalpenak, euskaraz zein espainolez idatzitako liburu erakargarriak egongo direla, osasun zentroko pediatria eremuan. Lau hilabetetan behin berriztatuko dituzte horiek. Bitartean, elkartasuna izango da Berangoko Liburuaren Astearen giltza. Apirilaren 19tik 23ra atari zabalean liburutegia jarri eta tailer bereziak egingo dituzte. Horretaz gain, ludotekak eta haur-liburutegiak euren egitarauak moldatuko dituzte, biak batera jolasak eta tailerrak aurrera ateratzeko, kalean, eguraldia lagun bada. Helburu nagusietako bat izango da, umeei ipuinak idatz eta marraz ditzaten, horiek editatu ondoren, Timovo-ko (Kimovichi, Bielorrusia) umezurtz-etxera bidaltzeko. Kontua da neska-mutil berangoztarrek herrian zehar bizi dituzten abenturen berri eman diezaieten, bielorrusiarrek ezagut ditzaten. Hori dela eta, itzulita helaraziko dizkiete istorioak. Argazkian, umetxo bat liburuak ikuskatzen.

'A.E.I.O.U' izenburuko itzalen ikuskizuna ere hartuko du Liburuaren Asteak, 3 eta 6 urte arteko txikiei zuzenduta. Emanaldia Berangoetako kultur etxean izango da, ostegunean (hilak 22), 18:30ean, sarrera dohainik. Agertokia bestelakoa izango da apirilaren 24an eta 25ean. Eguerdiko 12etatik 20:00etara Liburuaren Elkartasun Azokaren bigarren edizioa egingo dute udal pilotalekuan. Oraingo honetan, Bielorrusiara laguntza humanitarioa bideratzen duen Acobi elkarteari emango diote bildutako dirua. Besteak beste, material medikoa, botikak, umeentzako oinarritzko elikagaiak, berokiak eta automozio gaiak bidaltzen dituzte erradiazioak nahiko kutsatutako guneetara.

Ipuin kontalariak eta tailerrak

Frontoian, ipuin kontalari saioa egingo dute apirilaren 24an, larunbatarekin, Gizakien Lurra gobernuz kanpoko erakundeak sustatuta. Bestalde, adin guztietarako tailer bereziak 12:00etatik 14:00etara egongo dira zabalik. Toki berean, ludoteka ibiltaria jarriko dute, 1 eta 4 urte arteko umeei bereziki zuzendutako gunea izango dela. Tailerretan kamisetak ere marraztuko dituzte, Berangotik bidaliko duen kargamendu humanitarioarekin batera Timorovoko umezurtz-etxera eramateko asmoz. 18:30ean, berriz, disko festa txikia egingo dute.

Igandean (hilak 25) adin guztietarako tailerrak izango dira, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, frontoian; non 1 eta 4 urte arteko umeei zuzendutako gunea izango den. Goizez, Bielorrusian erradiazioak dituen eraginak ezagutzera emango dira, Elkartasun Pegatinen Tailerraren bitartez. Arratsaldeko zazpitan, 'Aissata' izenburuko ipuin kontalari saioa egongo da, Gizakien Lurra elkarteak antolatuta.